Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2064

EBAZPENA, 2009ko martxoaren 24koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, auto-taxietako bidaiarien hiri-garraioaren zerbitzu publikoa emateko, Leioako Udalak aurkeztutako 2009ko ekitaldirako tarifak onartzen dituena.

Euskadiko Prezioen Batzordeak, 2009ko martxoaren 24an egindako bileran, hartu zuen ebazpena argitaratzen da ondoren, guztiek jakin dezaten:

EBAZPENA

Auto-taxietako bidaiarien hiri-garraioaren zerbitzu publikoa emateko, Leioako Udalak aurkeztutako 2009ko ekitaldirako tarifak berrikusteko eskariari eman zitzaion sarrera Industria, Merkataritza eta Turismo Sailean, 2008ko abenduaren 29an.

Hiri-garraioaren eremuaren barruan, udalei dagokie tarifak prezioen kontrolari buruzko legerian xedatutakoari jarraiki finkatzea tarifak, bidaiarien automobil bidezko hiri-barruko eta hiriarteko garraio publikoari buruzko ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 3. artikuluko hirugarren idatz-zatian xedatu bezala.

Bidaiarien auto-taxi bidezko hiri-barruko garraioaren prezioak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1993ko otsailaren 26ko Aginduaren hirugarren eranskinean, eta ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuaren 16. artikuluko laugarren paragrafoan ezarritakoari jarraiki, prezioen kontrolari buruzko araudiari lotuta daude, Autonomia Erkidegoaren eremuko «prezio baimenduen» modalitatean hain zuzen ere.

Euskadiko Prezioen Batzordeak eskumen hori abuztuaren 30eko 230/1988 Dekretuaren (irailaren 20ko EHAA, 175. zenbakia) eta 1988ko irailaren 21eko Aginduaren (urriaren 4ko EHAA, 185. zenbakia) indarrez darabil. Organo horri dagokio eskatutako tarifak lotuta daudeneko prezioen araudi orokorrari (zeinari lotuta baitaude) egokituta dauden erabakitzea, prezioen politikarako neurriei buruzko urriaren 28ko 2695/1977 Errege Dekretuari eta hori garatzeko xedapenei jarraituz.

Industria eta Merkataritzaren 1988ko irailaren 21eko Aginduaren 5.1. artikuluak «baimendutako tarifen indarraldia, gutxienez, urtebetekoa izango dela» adierazten duela kontuan hartuz. Bestalde, agindu horrek hiri eremuan egindako Auto-Taxi eta Auto-Turismo zerbitzuen tarifak berraztertzeko espedienteek behar dituzten arauak ezartzen ditu.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

2064

RESOLUCIÓN de 24 de marzo de 2009, de la Comisión de Precios de Euskadi, por la que se aprueban las tarifas presentadas por el Ayuntamiento de Leioa para el servicio público de transporte urbano de viajeros en auto-taxi para el ejercicio 2009.

La Comisión de Precios de Euskadi, en su reunión del día 24 de marzo de 2009, adoptó el Acuerdo que se transcribe a continuación para general conocimiento.

ACUERDO

Con fecha 29 de diciembre de 2008, tuvo entrada en el Departamento de Industria, Comercio y Turismo la solicitud de revisión de tarifas del servicio público de transporte urbano de viajeros en auto-taxi presentada por el Ayuntamiento de Leioa para el ejercicio 2009.

Corresponde a los Ayuntamientos, dentro del ámbito del transporte urbano, la fijación de las tarifas con sujeción a los dispuesto en la legislación sobre control de precios, tal y como se establece en el artículo 3, apartado tercero de la Ley 2/2000, de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles de Turismo.

Los precios de transporte urbano de viajeros en autotaxi están sujetos a la normativa de control de precios en la modalidad de «precios autorizados» de ámbito autonómico, a tenor de lo establecido en el anexo tercero de la Orden del Ministerio de Economía y Hacienda de 26 de febrero de 1993, y el párrafo cuarto del artículo 16 del Real Decreto-Ley 7/1996, de 7 de junio.

La Comisión de Precios de Euskadi ejerce dicha competencia en virtud del Decreto 230/1988, de 30 de agosto (BOPV n.º 175, de 20 de septiembre), y de la Orden de 21 de septiembre de 1988 (BOPV n.º 185, de 4 de octubre), correspondiendo a este órgano enjuiciar si las tarifas solicitadas se adecuan a la normativa general de precios a que están sujetas, conforme al Real Decreto 2695/1977, de 28 de octubre, sobre medidas relativas a política de precios y sus disposiciones de desarrollo.

Considerando que, el artículo 5.1 de la Orden de 21 de septiembre de 1988, del Departamento de Industria y Comercio, por la que se establecen las normas a que han de ajustarse los expedientes de revisión de tarifas del servicio de Auto-Taxi y Auto-Turismos realizado en el ámbito urbano establece que: «El periodo de vigencia de las tarifas autorizadas será, como mínimo, de un año».

Kontuan hartuz aipatutako artikuluaren 2. paragrafoak honako hau adierazten duela: nahiz eta aurreko idatz-zatian ezarritakoa horrela izan, gora behera bereziak gertatzen badira, eta gora behera horiek espedientean egiaztatzen badira, indarraldi txikiagoa duten tarifak onartu ahal izango dira.

Aipatu arauak inflazioari eustekoak eta ekonomia-oreka jakin bat lortzekoak dira. Gainera, ondasunen eta zerbitzuen eta, bereziki, bizitza-kostuarekiko produktu estrategikoen prezioak eta monopoliopean edota konpetentziarik gabe egiten diren produktuen prezioak osatzeko mekanismoak zaintzekoak ere badira.

Aurreko lerroaldeetan aipatzen den eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak berriki emandako jurisprudentziak berretsi du (Epaiak: maiatzaren 12ko 342/97; 343/97 eta 344/97; maiatzaren 23ko 284/97; uztailaren 18ko 558/97 eta urriaren 10eko 726/97; uztailaren 30eko 618/97; urtarrilaren 23ko 32/98 eta 33/98; otsailaren 5eko 98/98; martxoaren 20ko 250/98, 257/98 eta 258/98; martxoaren 26ko 272/98 eta otsailaren 22ko 145/99).

2009. urterako aurkeztu diren tarifak berrikusteko espedientea aztertu ondoren, tarifak nahikotzat jotzen dira eta zerbitzua emateagatiko kostuen egituraren barruan sartzen diren kontzeptuetara egokiturik daudela uste da.

Euskadiko Prezioen Batzordea egituratzen duen abuztuaren 30eko 230/1988 Dekretua eta 1988ko irailaren 21eko Agindua, eta orokorrean -eta bereziki- aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aztertu ondoren, Euskadiko Prezioen Batzordeak, aho-batez, honako hau erabaki du:

Lehenengoa.– Auto-taxian hiri-garraioa egiteko, Leioako Udalak aurkeztutako 2009ko ekitaldirako tarifak onartzea. Hona hemen prezioak:

I. tarifa (*)

- Gutxienekoa(**)	4,83 euro.
- Egindako km	1,02703 euro.
- Itxaronaldia, orduko	15,93 euro.

(*) Tarifa hau laneguneta n, 07:00etatik 23:00etara aplikatuko da.

(**) I. tarifan gutxienekoak 1.893 metroko ibilbidea hartzen ditu.

Considerando que, el punto 2 del artículo referido señala que: «No obstante lo señalado en el apartado anterior, cuando concurran circunstancias especiales acreditadas en el expediente, la Comisión de Precios de Euskadi podrá autorizar tarifas cuya vigencia lo sea por un periodo inferior».

Las normas mencionadas están dirigidas a contener la inflación y conseguir un cierto equilibrio económico, y que también tienen su justificación en la necesidad de vigilar, los mecanismos de formación de los precios de diferentes bienes y servicios, y muy particularmente, de los productos estratégicos respecto del coste de la vida y de aquellos que se formen bajo condiciones monopolísticas o de ausencia de competencia.

La competencia a que se hace referencia en los puntos anteriores ha sido refrendada por la jurisprudencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (Sentencias: n.º 342/97; n.º 343/97 y n.º 344/97, de 12 de mayo; n.º 284/97, de 23 de mayo; n.º 558/97, de 18 de julio y n.º 726/97, de 10 de octubre; n.º 618/97, de 30 de julio; n.º 32/98, n.º33/98, de 23 de enero; n.º 98/98, de 5 de febrero; n.º 250/98, n.º 257/98 y n.º 258/98, de 20 de marzo; n.º 272/98, de 26 de marzo y n.º 145/99, de 22 de febrero).

Una vez analizado el expediente de revisión de las tarifas presentadas para el año 2009, se consideran suficientes y ajustados a los conceptos incluidos dentro de la estructura de costes de prestación del servicio.

Visto el Decreto 230/1988, de 30 de agosto, por el que se reestructura la Comisión de Precios de Euskadi y la Orden de 21 de septiembre de 1988, así como las demás disposiciones de carácter general y particular aplicables al caso, la Comisión de Precios de Euskadi, por unanimidad de los miembros presentes acuerda:

Primero.– Autorizar las tarifas del servicio urbano de auto-taxi, presentadas por el Ayuntamiento de Leioa para el año 2009, que a continuación se indican:

Tarifa I (*)

- Percepción mínima(**)	4,83 euros.
- Km recorrido	1,02703 euros.
- Hora de espera	15,93 euros.

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 23:00 horas.

(**) La percepción mínima incluye un recorrido de 1.893 metros en la Tarifa.

II. tarifa (*)

- Gutxienekoa (**)	5,29 euro.
- Egindako km	1,135958 euro.
- Itxaronaldia, orduko	20,73 euro.

(*) Tarifa hau egunero aplikatuko da 23:00etatik 07:00etara. II Tarifa 07:00etatik 23:00etara aplikatuko da igandetan eta Autonomia Erkidegoko eta Tokiko araudian jaiegun diren egunetan; baita larunbatetan ere,13:00etatik aurrera.

(**) II. tarifan gutxienekoak 1.958 metroko ibilbidea hartzen ditu.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik jarriko da indarrean.

Ebazpen honek administrazioko bidea amaitzen du; beraz, bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta hilabete biko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 24a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakaria,
JOSÉ LUIS MONTALBÁN MONGE.

Tarifa II (*)

- Percepción mínima (**)	5,29 euros.
- Km recorrido	1,135958 euros.
- Hora de espera	20,73 euros.

(*) Esta tarifa será aplicable todos los días, desde las 23:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa II desde las 07:00 horas a las 23:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados desde las 13:00 horas.

(**) La percepción mínima incluye un recorrido de 1.958 metros en la Tarifa II.

Segundo.– El presente Acuerdo entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra esta Resolución que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de esta jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de marzo de 2009.

El Presidente de la Comisión de Precios de Euskadi,
JOSÉ LUIS MONTALBÁN MONGE.